

**Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari****EUSKO JAURLARITZAREN KUDEAKETAREN LEHEN URTEAREN BALANTZEA
BALANCE DEL PRIMER AÑO DE GESTIÓN DEL GOBIERNO VASCO**

2025-06-12 Vitoria-Gasteiz 12-06-2025

Sailburuok, herri agintari eta ordezkariok, jaun-andreok, arratsalde on guztioi!

Eskerrak emateko arrazoi asko ditugu gaurkoan.

Lehenik eta behin, eskerrik asko gaur gurekin batera Lehendakaritzan egoteagatik. Zuen etxean zaudete.

Ondo dakizuen bezala, ia urtebete pasatu da Gobernu berria osatu genuenetik. Eta egia esango dizuet... sentrazio kontrajarriak ditugu, zentzu positiboan esanda.

Alde batetik, egunak oso intentsoak dira. Trinkoak. Egunero erabaki asko hartu behar ditugu. Bestalde, denbora ziztu bizian pasatzen zaigu. Begiak itxi orduko hamabi hilabete bete ditugu.

Baina, hori bai, ohorea izaten ari da bidaia hau bizitzea.

Lehen urteko ibilbidearen ondoren, kontuak emateko ordua dela uste dugu.

Lehendakaritzan ehun lagun inguru elkartu gara.

Eta zuek hemen egoteko arrazoia oso sinplea da: urte honetan zehar zuekin guztiekin lan egiteko aukera izan dut.

Beraz, hemen eskerrak emateko bigarren arrazoia: eskerrik asko deia egin dizuedanean erantzuteagatik eta lanerako erakutsi duzuen prestutasun eta konpromisoagatik.

Gobernu batek ezin du bakarrik eta bere kabuz gobernatu. Herritar guztiei zor zaie eta ez beste inori.

Hori horrela, herritarrei entzun eta herritarrekin lan egin behar dugu, etengabe.

Autokritikarako bidea etengabe elikatu, egunero hobetzen jarraitzeko.

Hori da lehen egunetik egiten saiatu garena. Horregatik ematen diet garrantzi berezia gaur bezalako ekitaldi hauei.

Eskerrak emateko eta, elkarlanean, Euskadi Berria zuekin batera eraikitzen jarraitzeko.

Autoexigentzia eta gardentasuna izan dira askotan errepikatu ditudan hitzak eta, zintzotasun osoz esaten dizuet: ez dugu dena ondo egin. Ez dugu guztian asmatu.

Baina hori bezain argi diot aurrera goazela. Martxa hartu dugula.

Hace poco menos de un año el Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista de Euskadi llegamos a un Acuerdo de investidura.

Negociamos y consensuamos un Programa que recoge 1.000 compromisos e iniciativas que responden a un triple objetivo:

- Fortalecer los servicios públicos vascos,



- Invertir en las transformaciones para preparar el futuro de Euskadi, y
- Reforzar nuestro sentido de comunidad.

En definitiva, un Programa para crecer como País y para crecer en bienestar.

Tras un año de intenso trabajo, ya hemos puesto en marcha el 54% de estas iniciativas y compromisos de nuestro Programa de gobierno.

Además, hemos puesto el foco en 10 Planes estratégicos para la presente legislatura:

- Industria,
- Ciencia, Tecnología e Innovación,
- Euskadi Global,
- Seguridad pública,
- Gobernanza,
- Salud,
- Juventud,
- Reto demográfico e inmigración,
- Igualdad,
- Euskera.

A su vez, seguimos adelante con nuestro Programa legislativo, que contempla aprobar un total de 16 Leyes en cuatro años.

Estamos cumpliendo la palabra dada. Es nuestra obligación.

Recuerdo bien el compromiso que adquirí personalmente y que trasladé el primer día al Consejo de Gobierno: “en el plazo de un año espero ver resultados”.

Hoy es un buen día para afirmar que avanzamos. Que estamos logrando los primeros resultados:

- Contamos con 1.029.149 personas trabajando y cotizando en Euskadi,
- Las listas de espera en Osakidetza se han reducido a 56 días de media,
- El tiempo medio de espera en Atención en Primaria es de 1,7 días.
- 6.173 jóvenes se han independizado gracias a Emantzipa y 8.188 reciben las ayudas al alquiler de Gaztelagun,
- El transporte público es gratuito para los menores de 12 años,
- El nivel A1 de euskera es también gratuito y, gracias a ello, se han acercado al euskera un 20% más de personas que lo hacían hace un año,
- Invertimos 20 millones de euros para dotar de cocinas a la red escolar pública,
- Un total de 4.100 empresas se han beneficiado de los programas de apoyo a la industria, especialmente pequeña y mediana empresa
- BetiON da servicio a 80.450 personas mayores.

Junto a ello, hemos dado pasos significativos también desde un punto de vista cualitativo, que simbolizan un País que se asienta en el modelo de colaboración:

- Mesa de Salud,
- Pacto Social Vasco por la Vivienda,
- Propuesta de desburocratización de la administración vasca,
- Grupo de expertos para la mejora de la calidad educativa,
- Firma del nuevo convenio en la Ertzaintza o en la Educación pública,

- Grupo para la Defensa Industrial de Euskadi o el recién presentado Plan Industrial,
- Estrategia Vasca de Empleo 2030,
- Alianza Financiera Vasca,
- Inicio del proceso 'Jauzia Gara', para la revitalización del Euskera,
- Ley de Medidas Urgentes en materia de Suelo y Vivienda, o
- Nuevas competencias en Meteorología, Autorizaciones de trabajo a personas extranjeras, Cercanías, Cine, Gestión del litoral o Actuación de la Ertzaintza en puertos y aeropuertos.

Estamos avanzando. Pero no es suficiente. Debemos seguir mejorando cada día.

El debate público forma parte de nuestro modelo de gobernanza.

En este sentido, agradezco la crítica constructiva que recibimos por parte de distintos agentes de la sociedad vasca y de los grupos de la oposición.

Agradezco la forma y el respeto que, en general, se está manteniendo en el debate público vasco.

Esta idea es importante porque no todo vale en política.

El insulto, la descalificación personal, el mal tono o la polarización no debieran tener cabida en nuestra acción diaria.

Debemos evitar que el bochornoso ambiente político que se respira en otras partes. Trabajamos para que ese ambiente nunca llegue a Euskadi porque, en ocasiones, también aquí vemos ligeros tics populistas y demagógicos. Debemos evitarlos a toda costa.

A lo largo de estos meses los grupos de la oposición me han interpelado por muchas cuestiones en el Parlamento Vasco.

El Partido Popular ha expuesto en varias ocasiones su preocupación por la situación de la industria vasca. El debate nos ha dado la oportunidad de analizar la evolución de nuestro tejido industrial y ha motivado la presentación y desarrollo de nuevas iniciativas.

Bildu ha expresado su inquietud por nuestro sistema público de salud o educación, la igualdad o el despliegue de renovables. Ha centrado su atención en confrontar modelos; y ha abogado por una mayor intervención desde el control público en todas estas materias.

El Grupo Mixto, SUMAR y VOX, me ha interpelado por temas como el derecho a decidir, la situación de la Ertzaintza, la vivienda o el sistema educativo.

A todos los grupos políticos les hemos ofrecido siempre las explicaciones requeridas, contrapuesto medidas y mantenido un debate constructivo en el Parlamento vasco.

Lo hacemos por una doble razón: nuestra obligación es escuchar a quien opina diferente y, además, nos ayuda a mejorar.

La disposición al diálogo y el acuerdo es nuestra seña de identidad.

La mesa por el Pacto de Salud es un buen ejemplo y está dando frutos:

- En diciembre aprobamos el Diagnóstico Compartido,
- En una segunda fase los Principios y Valores, y

- Los grupos de trabajo han presentado ya 22 documentos consensuados de las 24 líneas estratégicas para la transformación de Osakidetza y del sistema público de Salud en Euskadi.

Pongo en valor el trabajo de los grupos expertos en los que están participando más de 400 personas. La gran mayoría profesionales de Osakidetza, junto a representantes de la Universidad, Asociaciones de pacientes, Colegios profesionales, sindicatos o partidos políticos.

Es mucho más lo que nos une que lo que nos separa en estos momentos para alcanzar el Pacto de salud que demanda la sociedad vasca.

Debemos mantener este clima de colaboración y confianza.

El momento que vivimos exige compartir la fotografía de la situación actual, levantar la vista y mirar a largo plazo.

Vivimos tiempos de mucha volatilidad, de mucha incertidumbre, y de mucho cambio. Nuestra sociedad ha cambiado.

Es una sociedad mucho más diversa y una población más envejecida.

Hoy **más del 50% de la población vasca tiene 46 años o más**. El doble que hace 50 años.

En 1975, nacieron en Euskadi **41.100 niñas y niños**. El pasado año solo 12.937.

La población de origen extranjero era de aproximadamente **26.000 personas** hace 27 años. **Hoy son más 296.000**.

Es cierto que, en esta nueva sociedad, mantenemos nuestros niveles de bienestar en la media de los países europeos más avanzados:

Nuestra renta per cápita es de **39.500 euros**, casi 11.000 más que en 2012. Supera en más de 1.400 euros la media europea y en más **de 8.500** la del Estado.

Seguimos siendo un país industrial. La industria representa el 24% de nuestro PIB, 5 puntos por encima de la media europea.

Hoy la tasa de paro en Euskadi es del 7%. Hace 30 años, cuando yo estudiaba en la Universidad, era del 25%.

Hoy recibimos **4,7 millones de turistas**. Hace 14 años, 1,8 millones. Proyectamos internacionalmente un País atractivo y moderno.

Gizarte kohesioa oso kontuan hartu beharreko alor bat da.

Pobrezia tasa 4,4 puntu jaitsi da azken hiru hamarkada hauetan.

Pobrezia arriskua edo bazterkeria egoera neurtzen duen Arope tasari begiratzen badiogu, %15-ean gaude, Europako batez bestekoa baino nabarmen hobeto.

GINI indizea ere Europakoa baino hobea da Euskadin.

Beraz, laburbilduz, lehiakortasun ekonomikoa eta justizia soziala ondo uztartzeko gai izan gara gure Herrian.

Más datos que confirman este cambio.

Hace tres décadas, los problemas ligados al mercado de trabajo se situaban con mucha diferencia en primer lugar, seguidos por la violencia y el terrorismo, y la inseguridad ciudadana.

Hoy los problemas ligados al empleo y el mercado de trabajo siguen siendo motivo de preocupación, pero con mucha menor fuerza. Los grandes temas que aparecen hoy en las encuestas son la vivienda, la salud o la seguridad.

Esta es la nueva realidad. Y estamos dando respuesta.

Impulsar la actividad económica y las oportunidades de empleo de calidad es nuestra prioridad.

- Estamos actuando con la Estrategia vasca de empleo, el nuevo Plan industrial y la Alianza Financiera Vasca.
- Estamos actuando en materia de vivienda, con la Ley de medidas urgentes.
- Estamos actuando para mejorar la Atención primaria y reducir las listas de espera con el plan de choque y preparando el futuro con la Mesa y el Pacto por la salud.
- Estamos actuando para reforzar la Ertzaintza y garantizar la seguridad integral en Euskadi.

Somos un Gobierno de acción en un escenario de incertidumbre.

Un Gobierno que mira a los problemas de frente, arriesga y ofrece nuevas respuestas.

Gure arazoak bat datoz munduko herrialde aurreratuenek dituztenekin.

Gure eredu sozioekonomikoa garai berriaren eskakizunetara egokitu behar dugu.

Ezin diegu heldu desafio berriei joan den mendeko errezetekin.

Sakoneko erronkak ditugu: geopolitikaren eta munduko ekonomiaren eraldaketak, Adimen Artifiziala, populismoen gorakada, biztanleriaren zahartzea, klima aldaketa edo migrazioa.

Itsaso horretan nabigatzeko ez da nahikoa belak norabidez aldatzea.

Horregatik, erronkei eta ziurgabetasunari ekintzekin erantzuten diegu.

Ekin eta ekin. Elkarlanean. Ez dago besterik.

Gaurko arazoei aurrez-aurre begiratu eta erantzun berriak eskaintzen ditugu. Arriskatu egiten dugu.

Hau da Eusko Jaurlaritzaren iparra eta lan egiteko modua.

Encaramos este momento sobre tres principios:

- **Primero:** Construir sobre lo construido. No empezamos de cero, porque en Euskadi se ha hecho mucho y se ha hecho bien;
- **Segundo:** Colaboración. Búsqueda de soluciones involucrando a la ciudadanía y a la sociedad civil organizada; y
- **Tercero:** Acción. Arriesgar y responder a los nuevos retos con valentía. No es suficiente con mantener el bienestar. Debemos mejorarlo.

Hau da erronka berriei erantzuteko partekatu nahi dugun eredua eta jarrera.

Baikortasun eraldatzaile batetik abiatuta eta pertsona erdigunean jarrita, aurre egin behar diegu garai berriak areagotu ditzakeen desberdintasunei:

- Belaunaldien arteko arrakala adinekoen eta gazteen artean,
- Enplegu onen eta txarren artean,
- Hirien eta landa-eremuaren artean,
- Eremu publikoaren eta pribatuaren artean, edo
- Jatorri desberdineko herritarren artean.

Egoera berri hau kontutan hartuta, hiru erronka nabarmenduko ditut:

- Bat, Erronka demografikoa.

Gizartearen zahartzeak askotariko desafioak jartzen dizkigu mahai gainean: Adinekoen zaintza, Osasuna, Bakardadea, Enpresen profil askoren eta berrien beharra, edo Belaunaldi aldaketa enpresetan zein elkarteetan.

Adinari dagokionez, piramidea irauli egin da, eta sistema egokitu behar dugu.

Helburu garbi bat dugu: familientzako, klase ertainentzako eta, batez ere, gazteentzako etorkizuneko aukerak sortuko dituen Herria eraiki behar dugu.

Horretarako, balantza orekatu behar dugu, ekitatea eta belaunaldien arteko elkartasuna oinarri hartuta.

Gure harrobia zaindu behar dugu, bizi proiektuak garatu ahal izan ditzan. Etxebizitzarik eta kalitatezko enplegurik gabe ezinezkoa da.

- Bi, Lehiakortasuna.

Ekonomia aurreratu eta sendoa izatea da gure ongizatearen, zerbitzu publikoen, berdintasunaren eta bizi-kalitatearen euskarria.

Industria da gure apustua. Beraz, ezinbestekoa dugu industria ehunari eustea.

Asmatu behar dugu: bai egun ditugun enpresen lehiakortasuna babesterakoan, eta baita aukera eta sektore berriak lantzerakoan ere.

Europak hartutako norabide berrian protagonistak izan behar dugu. Aukerak etorriko dira eta gaitasunak dauzkagu horiek aprobetxatzeko.

Orain da datozen hamarkadetako ekonomiaren oinarriak jartzeko momentua, gure aurrekoek 80ko hamarkadan egin zuten bezala.

Lehiakortasunaren exijentzia denona da. Enpresa lehiakorrak behar ditugu, noski, baita pertsona, erakunde, elkarte, eragile sozioekonomiko lehiakorrak ere.



- Tercer reto: Cohesión social.

Somos una sociedad cada vez más heterogénea y compleja.

Afrontamos cambios sociales y culturales.

No somos ajenos al impacto migratorio y nos corresponde gestionarlo.

Contamos con un marco compartido: el Pacto Social Vasco para la Migración.

Debemos garantizar una “migración ordenada, segura y regular, basada en los principios de la defensa de los derechos humanos, la cohesión social y la integración”.

Porque integrar significa también no dejar a nadie atrás. Y la cohesión social no puede entenderse sin el fortalecimiento de nuestros valores, cultura, identidad propia, y sentir comunitario.

Un sentir comunitario que debe servirnos de brújula para orientarnos ante los cambios que vivimos. Y que debemos cultivar cada día.

Porque ser parte de la comunidad significa que somos parte de algo mucho mayor.

Estos son los retos que afronta nuestro Gobierno y, desde el primer día, dejé claro que prefería intentarlo y equivocarme, que no hacerlo. Eso mismo pedí, y sigo pidiendo, a las y los consejeros: que arriesguen y se mojen.

Es lo que nos pide la ciudadanía y es la voluntad que explica las medidas que estamos tomando durante este primer año en materia de Salud, Industria, Vivienda, Energía o Seguridad.

Amaitzera noa.

Badakit egindako guztia ez dela nahikoa izan.

Badakit neurriez gain, galdera asko jarri ditudala mahai gainean, eta konpromisoak ere eskatu ditudala.

Izan ere, denon artean eraiki behar dugu Euskadi Berria. Denon artean marraztu behar dugu etorkizuna.

Uste dut oinarrien inguruko adostasun bat badugula.

Elkarlanean jarraitu behar dugu, adostasun horren gainean, erantzun eta konponbide berriak lantzen.

Guretzat oso garrantzitsua da zuekin proiektu honen egitasmo nagusiak partekatzen jarraitzea. Ez baita Gobernu baten proiektua, Herri osoarena baizik. Zuen eta guztiona.

Horregatik deitu zaituztegu gaur. Gertutasunaren, Entzute aktiboaren, Elkarlanaren eta Gardentasunaren bidean aurrera egiten jarraitzeko.

Eskertzen dugu zuen partetik hilabete hauetan jaso dugun laguntza eta egin dizkiguzuen proposamen guztiak. Baita gaur Lehendakaritzara etorri izana ere.

Urtebete igaro da. Geure onena ematen ari gara, zintzotasunez eta ilusio guztiarekin, baina badakigu asko dugula egiteko.

Eta zalantzarik ez dugu, indarrak elkartuz, onena iristeko dago.

Eskerrik asko!